

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4059

EBAZPENA, 2023ko uztailaren 26koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak emateko 2023ko deialdia, ekintza humanitarioko estrategien modalitatean.

Ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuan, ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dira, eta bi jarduera-mota bereizten. Alde batetik, ekintza humanitarioko proiektuak, krisi humanitarioek eragindako pertsonak babesteko direnak; eta, beste aldetik, ekintza humanitarioko estrategiak, hots, epe ertaineko eta aurrekontu handiagoko esku-hartzeak, zeinek, aipatutako babes-ekintzez gain, erakunde humanitarioak sendotzeko eta euskal herritarrek sentsibilizatzeko bestelako ekintzak ere jasotzen baitituzte.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2023ko martxoaren 23ko Ebazpenaren bidez (2023ko apirilaren 17ko EHAA, 72. zk.), garapenerako lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak emateko deialdia egin zen, 2023ko ekitaldirako.

Ikusi da aipatutako deialdi-ebazpenaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera laguntzak emateko egindako proposamena, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Koordinazio Teknikoko Zerbitzuak laguntza-eskaerak baloratu eta eskaera horien azterketa teknikoa egin eta gero. Hori horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2023ko martxoaren 23ko Ebazpenaren bidez deitutako ekintza humanitarioko estrategietarako laguntzak esleitzea. Laguntza horiek ebazpen honen I. eranskinean jasotako entitateei emango zaizkie, eranskin horretan adierazitako zenbatekoan eta eran.

Bigarrena.– Ukatzea II. eranskinean ageri diren entitateen laguntza-eskaerak, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Onartzea III. eranskinean zerrendatutako entitateek laguntza-eskabideetan atzera egitea.

Laugarrena.– Baztertzea IV. eranskinean ageri diren entitateen laguntza-eskaerak, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Bosgarrena.– Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dituen ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuaren 4.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, 2023ko ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzen modalitate bideratuko dira ekintza humanitarioko estrategietarako laguntzen modalitateko 2023ko aurrekontuko 41.971,06 euro, esleitu gabe geratu baitira.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, herritar oro jakinaren gainean egon dadin.

Zazpigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal

2023ko abuztuaren 28a, astelehena

Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Gora jotzeko errekurtoa aurkeztu eta hiru hilabete igaro ondoren ebazpenik eman ez bada, ezetsizat jo ahal izango da errekurtoa, eta zabalik geratuko da administrazioarekiko auzien bidea.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 26a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

I. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Puntuazioa	Dirulaguntza
EHE-2023BA/0005	Fundación Mundubat-Mundubat Fundazioa	Mejora de la salud mental y apoyo psicosocial de mujeres, niñas, niños y adolescentes en la Franja de Gaza	Palestinako Estatua	77	716.057,88 €
EHE-2023BA/0004	Fundación Alboan	Regreso con-sentido: estrategia integral de preparación y acompañamiento al retorno de personas burundesas refugiadas en Tanzania	Burundi	69	799.999,99 €
EHE-2023BA/0003	Farmacéuticos Mundi	Protegiendo la dignidad de la población refugiada en Uganda: respondiendo a la violencia sexual y violencia basada en género como vulneración de derechos humanos y problema de salud pública	Uganda	68	800.000,00 €
EHE-2023BA/0007	Asamblea de Cooperación por la Paz	Estrategia localizada de nexo para la protección integral de los derechos y dignidad de la población palestina del sudeste de Nablus Bajo ocupación de acuerdo al Derecho Internacional Humanitario y el Derecho Internacional de los Derechos Humanos (Palestina)	Palestinako Estatua	68	800.000,00 €
EHE-2023BA/0006	Asociación Comité Español de la UNRWA	Estrategias de empoderamiento para reducir la vulnerabilidad de las mujeres refugiadas de Palestina en Líbano	Libano	64	800.000,00 €

2023ko abuztuaren 28a, astelehena

II. ERANSKINA

ESKABIDE EZ ONARTUAK DIRU-FUNTSAK AGORTZEAGATIK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Puntazioa
EHE-2023BA/0010	Nazioarteko Elkartasuna - Solidaridad Internacional	Estrategia integral de empoderamiento, creación de medios de vida y protección de los derechos humanos de las mujeres refugiadas en el sur del Líbano	Libano	63
EHE-2023BA/0009	Fundación UNICEF- Comité Español	Comunidades protectoras para la niñez y la adolescencia en Colombia	Kolombia	52

2023ko abuztuaren 28a, astelehena

III. ERANSKINA

ATZERA EGINDAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea
EHE-2023BA/0001	Fundación UNICEF- Comité Español	Fortaleciendo de forma integral y dando acceso a los sistemas de protección de la infancia en Yumbe con enfoque de género, nuevas masculinidades y acompañamiento institucional	Uganda
EHE-2023BA/0002	Lesly Jackeline Menéndez	Beca de especialización y formación de profesionales en el área de cooperación para el desarrollo	Euskadi
EHE-2023BA/0008	Asociación Nutrición Agricultura Familia	Estrategia de asistencia humanitaria para la mejora de los mecanismos de la Seguridad Social y protección de vida de las poblaciones desplazadas por el conflicto bélico de Casamance/Senegal	Senegal

IV. ERANSKINA

BAZTERTUTAKO PROIEKTUAK

Espedientea	Eskatzailea	Proiektua	Herrialdea	Baztertzeko arrazoa
EHE-2023BA/0011	Cruz Roja	Mejorar la situación humanitaria de las mujeres y niñas víctimas de violencia de género en los campos de refugiados y/o de acogida de Maradi en Níger	Níger	Ez dira betetzen 90/2019 Dekretuaren 16.1. artikulua Ekintza Humanitarioko Estrategian ezarritako baldintzak.
EHE-2023BA/0012	Asociación de Amigos y Amigas de la RASD de Álava	Campamento de acogida a familias saharauis desplazadas de los TLL tras la reanudación del conflicto armado	RASD	Ez dira betetzen 90/2019 Dekretuaren 16.1. artikulua Ekintza Humanitarioko Estrategian ezarritako baldintzak.